

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: **1007/2008 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2008ko irailaren 24koa, Sareen eta Informazioaren Segurtasunerako Europako Agentzia eratzen duen 460/2004 (EE) Erregelamenduaren iraupena aldatzen duena**

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «*REGLAMENTO (CE) N° 1007/2008 DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 24 de septiembre de 2008, que modifica el Reglamento (CE) n° 460/2004, por el que se crea la Agencia Europea de Seguridad de las Redes y de la Información, en lo que respecta a su duración*».(Diario Oficial de la Unión Europea, L 293/1, 31.10.2008)

1007/2008 (EE) Erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 293/1, 2008/10/31koa).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(Derrigorrez argitaratu beharreko EE/Euratom Tratatuak aplikatuta onartutako egintzak)

ERREGELAMENDUAK

1007/2008 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA 2008ko irailaren 24koa Sareen eta Informazioaren Segurtasunerako Europako Agentzia eratzen duen (EE) 460/2004 Erregelamenduaren iraupena aldatzen duena

(Testu egokia EEEri dagokionez)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzekeo Tratatuaz aztertu dute, eta, bereziki, haren 95. artikulua,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute ⁽²⁾,

Tratatuaren 251. artikuluan ⁽²⁾ ezarritako prozedura jarraitu da.

Alderdi hauek kontuan hartu dituzte:

(1) 2004ko martxoaren 10ean, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 460/2004 (EE) Erregelamendua ⁽³⁾ onartu zuten, Sareen eta Informazioaren Segurtasunerako Europako Agentzia (aurrerantzean «Agentzia» deituko zaio) eratzen zuena. Erregelamenduan, bost urteko iraupena izango zuela zehaztu zuten.

(2) 2007ko martxoaren 23an, Agentziaren Administrazio-kontseiluak, Agentziaren ebaluazioaren ondoren, 460/2004 (EE) Erregelamenduan erantsi beharreko aldaketei buruzko gomendioak plazaratu zituen.

(3) «Legeak hobeto egin» estrategiari jarraiki, Batzordeak Agentziaren hedadura eta etorkizunari buruzko kontsulta jendaurrean jarri zuen, 2007ko ekainaren 13tik irailaren 7ra bitartean.

(4) Agentziaren agintaldia 2009ko martxoaren 13an bukatzen dela kontuan hartuta, eta koherentzia eta jarraitasuna bermatzeko asmoz, beharrezkoa da luzapen bat onartzea Agentziari buruzko eztabaidarekin jarraitzeko aukera izateko. Horrela, aukera izango da Agentziaren ebaluazio-prozesuen emaitzak, Administrazio-kontseiluaren gomendioak eta komunikazio elektronikoen sare eta zerbitzuen esparru arautzailearen gaur egungo gainbegiraketa egiteko. Horrez gain, sareek eta informazioak segurtasun handiagoa izan dezaten Europako ahaleginak ebaluatzeko zuzendaritza nagusiak egindako azterketarekin jarraitzeko aukera ere emango du. Agentziaren iraupena luzatu egingo da, eztabaidaren emaitzak direnak direla ere.

(5) Agentziaren iraupena, hortaz, 2012ko martxoaren 13ra arte luzatu behar da.

HORRENBESTEZ, ERREGELAMENDU HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

460/2004 (EE) Erregelamenduaren aldaketa

Testu honek ordezkatuko du 460/2004 (EE) Erregelamenduaren 27. artikulua:

«27. artikulua

Iraupena

Agentzia zortzi urterako eratu da 2004ko martxoaren 14tik aurrera.»

(1) 2008ko otsailaren 13ko Irizpena (oraindik Egunkari Ofizialean argitaratu gabea).

(2) Europako Parlamentuaren Irizpena, 2008ko ekainaren 17koa (Egunkari Ofizialean oraindik argitaratu gabea), eta Kontseiluaren 2008ko irailaren 15eko Erabakia.

(3) EO L 77, 2004.03.13koa, 1. or.

1007/2008 (EE) Erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 293/1, 2008/10/31koa).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

2. artikulua

Indarrean sartzea

Zuzentarau hau *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Erregelamendu honen elementu guztiak dira bete beharrekoak eta estatu kide bakoitzean zuzenean aplikatzekoak.

Estrasburgon emana, 2008ko irailaren 24ean.

Europako Parlamentuaren izenean, H.-G. PÖTTERING Lehendakaria

Kontseiluaren izenean, J.-P. JOUYET Lehendakaria

1007/2008 (EE) Erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 293/1, 2008/10/31koa).